

## **2.011KO UZTAILAK 7.**

### **EZ OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

**ALKATEA  
ZINEGOTZIAK:  
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.  
Harkaitz Arruti Eizagirre.  
Nerea Agirretxe Aranburu.  
Iñaki Irulegi Apalantza.  
Leire Beristain Mendizabal.  
Luis Berrondo Lanceta.

**Bertaratu gabea:**

Iñor ez.

**IDAZKARIA:**

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako uztailaren zazpiko hogeita bat ordu eta bost minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udaltzako bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

#### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **UDAL BATZARRAK 2011.06.11AN EGINDAKO BATZARRI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.**

Idazkariak Udal Batzarrak 2011ko ekainaren 11an egindako Plenoaren akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

#### **BIGARRENGO PUNTUA:**

#### **UDALBATZAREN ETA BATZORDE INFORMATZAILEEN BATZARRE ARRUNTAK EGITEKO EGUN ETA ORDUEN FINKAKETA.**

Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko erregelamenduaren 38 eta 78.artikuluen berri ematen du.

Ondoren, Alkateak Udalbatzako Pleno arruntak hilean behin, hileko lehengo ostegunean, gaueko 21:00etan egitea proposatzen du. Eta Batzorde Informatzaile iraunkorra hilabeteko azkeneko ostegunean, gaueko 21:00etan.

Gai hau botutara jarriaz, proposamena aho batez onartzen da.

#### **HIRUGARREN PUNTUA:**

##### **BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA ONARTZEA.**

Azaroaren 28ko Udal Korporazioetako antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko 2.568/1.986 erregelamenduaren 38.artikuloaren arabera, Nerea Agirretxe zinegotziak proposatzen du ondoren aipatzen den Batzorde Informatzaile iraunkor orokorra sortzea, hau da, Batzorde Informatzaile iraunkor orokorra, Batzordeko kideak zinegotzi guztiak izango direlarik.

Ondoren, Idazkariak jakinerazten du, hau Batzorde Informatzaile bakarra izango dala eta Batzorde honek legeak agintzen duen bezela, Kontuetako Batzorde bezela ere funtzionatuko duela.

Gai hau botutara jarriaz, batzorde honen sorrera aho batez onartzen da

#### **LAUGARREN PUNTUA:**

##### **UDALAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIEN IZENDAKETA.**

Nerea Agirretxe zinegotziak Udalak ordezkatuta egon behar duen erakundeetako ordezkarien berri ematen du:

1.- Saiaz mankomunitatea- Ordezkaria Maria Jesus Salsamendi Astiazaran eta Ordezkoa Harkaitz Arruti Eizagirre.

2.- Gipuzkoako Ur Kontsorzioa- Ordezkaria Maria Jesus Salsamendi Astiazaran eta Ordezkoa Iñaki Irulegi Apalantza .

3.- Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitatea: - Ordezkariak Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga eta Harkaitz Arruti Eizagirre.

4.- Urkome- Ordezkaria Maria Jesus Salsamendi Astiazaran eta Ordezkoa Luis Berrondo Lanceta.

5.- Iraurgi Lantzen- Ordezkaria Maria Jesus Salsamendi Astiazaran eta Ordezkoa Nerea Agirretxe Aranburu.

6.- Eskola Kontseilua- Ordezkaria Luis Berrondo Lanceta eta Ordezkoa Maria Jesus Salsamendi Astiazaran.

7.- Zaborrak- Ordezkaria Jokin Uzkudun Goenaga eta Ordezkoa Maria Jesus Salsamendi Astiazaran.

Alkateak diruzaina Nerea Agirretxe Aranburu izendatu du.

Bozketa egin ondoren eta Udal Osoko Bilkurak bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabaki du:

Lehena.- Alkateak egindako proposamena bere osotasunean onartzea, goian aipaturiko Erakundetan adierazitako Udal ordezkariak izendatuz.

**BOSTGARREN PUNTUA:  
ALKATEORDEEN IZENDAKETAREN KONTU EMATEA.**

Azaroaren 28ko 2.568/1.986 Udal Entitateetako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 46.1 artikulorekin bat etorritik, Alkateak jakinerazten du Jokin Uzkudun Goenaga jauna 1. Alkateorde eta Harkaitz Arruti Eizagirre 2.Alkateorde izatea izendatu dituela 2.011ko ekainaren 23ko 105/2011 Alkateza Ebazpenaren bidez.

**SEIGARREN PUNTUA:  
HERRITARREK PARTE HARTZEKO LAN TALDEAK SORTZEKO  
PROPOSAMENA.**

Nerea Agirretxe zinegotziak ondoren aipatzen diren lan taldeen osaketaren berri ematen du eta aipatzen du lan talde hauek Udaletxeko zinegotzi eta herritarrez osatuko direla:

**1.- Nekazaritza- Ingurumena:**

ARDURADUNA- Maria Jesus Salsamendi  
ORDEZKOAK- Iñaki Irulegi eta Jokin Uzkudun

**2.- Hirigintza-Azpiegiturak-Zerbitzuak:**

ARDURADUNA- Jokin Uzkudun  
ORDEZKOAK- Harkaitz Arruti eta Leire Beristain

**3.- Gizarte Ongizatea:**

ARDURADUNA- Maria Jesus Salsamendi

ORDEZKOAK- Harkaitz Arruti eta Nerea Agirretxe

#### **4.- Kultura- Kirola -Hezkuntza:**

ARDURADUNA- Harkaitz Arruti

ORDEZKOAK- Luis Berrondo eta Jokin Uzkudun

#### **5.- Gazteria:**

ARDURADUNA- Nerea Agirretxe

ORDEZKOAK- Jokin Uzkudun eta Harkaitz Arruti

#### **6.- Parekidetasuna- Partaidetza- Komunikazioa:**

ARDURADUNA- Nerea Agirretxe

ORDEZKOAK- Maria Jesus Salsamendi eta Harkaitz Arruti

#### **7.- Ogasuna- Diruzaintza:**

ARDURADUNA: Nerea Agirretxe

Gaia botutara jarri aurretik, Luis Berrondo zinegotziak dio ondoren aipatzen dena aktan jasotzea nahiko lukeela. Maria Jesusek aktan jasotzeko aipatzen du. Luisen idatziak literalki zera dio:

“Bozkatu baino lehenago, Udaletxearen antolaketa proposamenari buruz gure iritzia eman nahi dugu.

Bildu taldearekin bi bilera egin ondoren, Udaletxearen antolaketari buruz egin zaigun proposamena ez dugula konpartitzen esan nahi dugu, ondoren azaltzen ditugun arrazoiengatik:

Uztailak 29an egindako aurreneko bileran, aurkeztutako modeloa negoziabilea zen galderaren aurrean, baietz esan zitzaigun, gure proposamenak lasai botatzeko eta aztertuko zitzutela, ala egin genuen, baina ez zeintzuk ziren arrazoiak azaldu gabe. Bilera hartan, lanak eta ardurak banatzeko garaian, gure ikus-puntutik, zer nolako gauzak kontuan hartu behar ziren jakin arazi genien. Logikoa ikusten genuen, lan baten arduraduna izendatu baino lehenago, pertsonen gaitasunak eta esperientzia kontuan hartzea. Horregatik horrelako proposamena bota genuen:

**Leire:** Hirigintza-Azpiegitura-Industria batzordearen arduraduna izatea.

**Iñaki:** Nekazaritza-Ingurumena

**Luis:** Hezkuntza eta Teknologi Berriak.

Hurrengo astean, uztailak 4an egindako bileran berriz, guk egindako proposamenaren erantzuna jaso genuen, erabaki zutela beraiek ardura hartzea konpetentzi guztietan, asko arrazoitu gabe. Gure postura defenditzen saiatu ondoren, konpetentzi guztietan ordezkoa edo bigarren ordezkoa izateari logika bilatzen ez geniolako, erantzun gogorra eman zitzaigun: “ERHA taldeari arduraduna ematea, herriari burla egitea izango litzatekela, hauteskundeetako emaitzetan bi taldeen artean zer nolako diferentzi egon zen kontuan hartuz. Hau entzunda, garbi ikusi genuen ez zegoela negoziatzeko ez asmorik, ezta aukerarik ere.

Horrela izanda ere, Bilduk aurkeztutako modelo horren barruan lan egiteko prest gaudela esan behar dugu, baina ezin dugu onartu ERHA taldeari bozkatu dion 162 herritarrei, guri ardura ematea burla egitea dala esatea.

Guk lanerako proposamena egin genuen, ez oposizioa egiteko. Bilduk 4 zinegotzi lortu zituen, ERHAk 3. Diferentzi zinegotzi batena da, ez gehiago, guri ardura ez ematea erabiketzeko.

Alkateak, Udala eratzeko egin zen Osoko Bilkuran esan zuen bezala, Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian“. ERHA taldea bat dator hitz horiekin eta gustatuko litzaiguke Errezilen ere horrela izatea.

Hau guztia kontuan hartuz, eta Bilduk egindako lan banaketa konpartitu ez arren, prest gaude lehenago esandako 3 lan batzordeetan lan egiten hasteko ordezkariak bezala. Gainerako besteetan, herritarrak bezala hartuko dugu parte“.

Gaia botutara jarri ondoren, lan talde hauek aho batez onartzen dira.

## **ZAZPIGARREN PUNTUA: ALKATEAREN IHARDUNALDIAREN ONARPENA.**

Idazkariak apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.2 artikulok literalki zera diola jakinerazten du: Los miembros de las corporaciones locales que desempeñen sus cargos con dedicación parcial por realizar funciones de presidencia, vicepresidencia u ostentar delegaciones o desarrollar responsabilidades que así lo requieran, percibirán retribuciones por el tiempo de dedicación efectiva a las mismas, en cuyo caso serán igualmente dados de alta en el Régimen General de la Seguridad Social en tal concepto....“.

Idazkariak jakinerazten du, Alkatearen proposamena ondorengoa dela: Alkatea zatikako lanaldian liberatzea, hau da, lanaldi osoaren % 25eko portzentaian eta UDALHITZ-eko 9.mailan. Alkatearen zatikako lanaldirako asignazioa urteko 8.698,34 € -tako izango delarik (hamalau pagekin).

Beraz, proposatzen da:

**Lehenengoa.** Indarrean dagoen legegintzaldian, zatikako arduraldian aritzeko kargu bat izendatzea: Alkatearena .

**Bigarrena.** Kargu honen zatikako lanaldia Udalean ohikoa den lanaldi osoaren % 25 izango da, eginkizunen ezaugarriek eskatzen duten ordutegi malgutasunarekin.

**Hirugarrena.** Kargua onartzeak beste jardueretik bateraezintasuna ekarriko du abenduaren 26ko 53/1984 Legeari jarraiki, zeina Herri Administrazioen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzkoa baita.

**Laugarrena.-** Alkatearen kargurako urteko 8.698,34 euroko lansaria onartzea (UDALHITZ-eko 9.nibela) , bi aparteko pagarekin, Gizarte Segurantzarekin eta PFEZren atxikipenekin, 2011ko uztailaren 9tik aurrerako eraginarekin.

**Bostgarrena.-** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Gaia botutara jarri ondoren, aho batez, onartzen da.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA: ZINEGOTZIEN ORDAINSARIEN ONARPENA.**

Idazkariak apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.3 artikulok literalki zera diola jakinerazten du: Sólo los miembros de la Corporación que no tengan dedicación exclusiva ni dedicación parcial percibirán asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de la Corporación de que formen parte, en la cuantía señalada por el pleno de la misma“.

Eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.4 artikulok literalki zera dio: los miembros de las Corporaciones locales percibirán indemnizaciones por los gastos efectivos ocasionados en el ejercicio de su cargo, según las normas de aplicación general en las Administraciones públicas y las que en desarrollo de las mismas apruebe en pleno corporativo“.

Ondoren, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan aipatzen denaren berri ematen da.

Leire Beristain zinegotziak dio beraien taldeak asistentzi eta kilometrai hauek ez dituztela kobratuko.

Gaia botutara jarri ondoren, aho batez, zinegotzi bakoitzari asistentzi bakoitzeko 30 € ordaintzea eta norbere ibilgailua erabiltzeagatik kalteordain gisa 0,29 euro kilometroko ordaintzea erabaki da.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko maiatzaren 6tik (62/2011 Alkatetza Ebazpena) uztailaren 6ra (114/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**HAMARGARREN PUNTUA:  
2011KO EKAINAREN 11KO DATAREKIN UDAL KONTUETAN ZEGOEN  
DIRU ETA MAILEGUEN BERRI EMATEA.**

Idazkariak 2011ko ekainaren 11an zeuden gerakinen berri ematen du:

Kaja- 170,83 €

Kutxa- . 55.745, 57 €

Euskadiko Kutxa- 4.912,75 €

Rural Kutxa- 583,78 €

**GUZTIRA- 61.412,93 €**

Ondoren, Udalak dirutan dituen abalen zerrenda jakinerazten du:

- 1.- JOSE RAMON AGIRRE- 200 €
- 2.- JOSU ARRILLAGA- 175 €
- 3.- ERREZILGO DENDAKOAK- 360 €-
- 4.- MERTXE MENDIZABAL (BORONDEGI)- 1.500 €-
- 5.- IMARA INGENIERITZA (ARAUAK)- 3.050,00 €-
- 6.- GORKA TOLOSA (GAZTELEKUA)- 1.500 €-

**GUZTIRA- 6.785,00 €**

Eta azkenik, Idazkariak jakinerazten du Udalak 5 mailegu dituela, 4 Kutzarekin eta 1 Nafarroako Rural Kutzarekin. Kutzarekin dituenak ondorengoak dira:

1.- 1999ko abenduaren 20an hitzartutakoa, eta gaur egungo zorra 29.564,48 €-takoa da.

2.- 2004ko ekainaren 8an hitzartutakoa eta gaur egungo zorra 131.663,17 €-takoa da.

3.- 2006ko uztailearen 27an hitzartutakoa eta gaur egungo zorra 177.890,56 €-takoa da.

4.- 2006ko azaroaren 21ean hitzartutakoa eta gaur egungo zorra 172.714,36 €-takoa da.

Eta Nafarroako Rural Kutxarekin duena 2010eko urtarrilaren 27an hitzartutakoa da eta gaur egungo zorra 339.000,00 €-takoa da.

Udala guzti honen jakinaren gainean geratzen da.

**HAMAIKAGARREN PUNTUA:  
JUBILATUEN BIDAICO PROGRAMA ONARTZEKO DEKRETUAREN  
BERRI EMATEA.**

Alkateak uztailearen 16an, larunbata, herriko **Jubilatu eta Pentsiodunekin irteera** egiteko asmoa dagoela jakinerazten du, ondorengo ibilbidearekin:

Goizeko 8:30tan plazan bilduko gara eta bidean nonbait geratu eta gosaldu egingo dugu. Ondoren Ezpeleta herria bixitatuko dugu, baita bertan aurki dezakegun Europako arditegi eta gatzategirik haundienetako bat ere, ikusgarria benetan.

Ondoren bazkaltzeko Hondarrabira itzuliko gara, han **ARDORA** Jatetxean bazkaltzeko. Hauxe duzue menua:

Urdai Azpikoa  
Patea Oporto Salsarekin  
Txangurro betea labean egina  
Zapoa edo Entrekota  
Etxeko izozkiak txokolatearekin  
Edariak eta Kafeak

Bakoitzak ordaindu beharrekoa 35 €.

Bukatzeko, Jaizkibel aldetik bueltatxo bat emango dugu eta jarraian etxerako bidea hartuko dugu.

Autobuseko bidaiko gastua 572,40 €-takoa eta gosari bakoitzeko 6 €-tako izango dala dio eta herriko 2 elkarteei bidai hau antolatzeke dirulaguntza eskatu diogula ere jakinerazten du.

Ondoren Iñaki Irulegik galdetzen du ea elkarteek laguntzarik ematen ez badute, bidaia nola ordainduko den. Alkateak erantzuten dio, badaukatela esperantza elkarteek laguntzeko.



Udala guzti honen inguruko jakinaren gainean geratzen da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatiak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.